

Literatura

Baudelairetxea jaunaren bila

Igel hanka lez irensten den liburua argitaratu du Jurgi Kintanak Pamielarekin: *Urre urdinaren lurrina*. Saio erabat atipikoa da. Paper zaharren artean murgildu, eta euskal idazle galdua xerkatu du historialari bilbotarrak. Zer aurkitu duen, bestelako kontua da.

GORKA BEREZIARTUA

ZAILA BAITA ez dagoen lekuan ezer topatzea. Baina gutxienez, jolas polita proposatzen du 100 orrialdeak iristen ez dituen saiotxo honek: XIX. mendeko poeta sinbolista euskalduna bilatzea. Akuilua *Volgako Batelariak* blogean sartu zioten: Angel Errok esaten zuen, jarraitzeko edo apurtzeko tradizioz gabe, neketsua dela bidea gaurko idazle euskaldunarentzat. Eta beraz, garai hartakoen maneran idatzitako liburu apokrifikoak beharko genituzkeela. Iban Zalduak –bai, aurreko orrialdean dagoen gizon hori– nobelatar errealista, edo are, naturalista proposatu zuen apokriforako. Zerbait egingarriagoa bilatu du Kintanak: “XIX. mendeko apokrifoa posibleagoa litzateke Zalduak bostehun orrialdeko nobelatarra barik testu laburrago bat proposatu izan balu. Hau da, testu ez-kostunbrista bat, burges girokoa, are puntakoa, baina laburra”. Pauso bat harago eman –“Eta aukera sinesgarria izanik gertaera erreala balitz?”– eta hara, liburua.

Hipotesi ugari jarri ditu Kintanak mahai gainean, eta aleka-aleka baztertuz joan da. Azpimarratzeko moduko pertsonaiak daude bidean: Edward Spencer Dogson euskararen ikerlari ingelesa, Azkuek baztertu zuena “sodomia” gustuko zuelako; Jean Etxepare, Aldudeko medikua, Jesukristoren aurka idazten aurrenetarikoak –Kepa Altonagak badu saio interesgarri bat hari buruz gehiago jakin nahi duenarentzat–; XX. mende hasierako Bilboko gazte abertzaleen giroa; kezka existentzialistak argitaratu zituen Pantheske Astibia *Onintze*...

Irakurri osteko lau ondorio

Bat: uste baino entretenigarriagoa izan zela euskarazko literatura XIX. mendean... Tira, ez; ez oso dibertigarria, baina badira gehiegi

nabarmendu ez diren arren, irakurri berri bat mereziko luketen idazleak.

Bi (aurrekoa baino garrantzitsuagoa): Kintanak hondarreko kapituluan dio, Lazarragaren artzain nobelaren aurkikuntza hain berandu gertatu delako, ez duela eraginik izan ondorengo idazleengan; izatekotan, hemendik aurrera izango duela; azken finean, euskal literaturaren tradizioa ipuin eta poema soltez osatu dela, nobela sendoz baino. Eta orain badauzkagula baliabideak (Armiarma.com eta tankerakoak) hori gerta ez dadin.

Hiru (kazetariak historiaren aurrean beldurtuta idatzia): Baina zer tradizio ari da sortzen orain? Ados, egituratuagoa dago dena; sistema(txo) bat existitzen da, baina... Zerk ziurtatzen digu hemendik 100 urtera euskaraz jardun nahi duen idazlea ez dela kezakoa, XXI. mendean ez zelako idatzi X motako nobelarik? Nortzuk dira gaur egungo Jean Etxepareak eta *Onintze*ak? Kasurik egin al die artikulu hau sinatu duenak aldizkari honetan? Batzuetan beldur hori etortzen zaio burura: historiak beharbada ez duela absolbituko, etorkizunean interes apur bat izango duten idazleei ez dielako lekurik eskaini.

Eta lau (izua uxatu nahian, burutazio xelebrea): Kintanak erakutsitako bideetatik ukronia interesgarri franko idatz daitezke. Imajinatu: 1920ko hamarkadako dadaista euskaldunen gorabeherak kontatuko lituzkeen nobela, haien poema zati eta guzti; edo, botatzeagatik, 1960ko hamarkada bukaeran, demagun ETArene eszizio batetik sortuko lirakeen situazionista independentistak... Gure historia herrera korrika jartzeko modua izan liteke; eta, nork daki, beharbada jendeak sinetsi egingo lituzke, nobela historikoak egiazkotzat jotzen dituen modu beretsuan. ■

Nortzuk dira gaur egungo Jean Etxepareak eta Onintzeak? Kasurik egin al die artikulu hau sinatu duenak aldizkari honetan?

Charles Baudelaire-ren tankerako sinbolista euskaldunik izan ote zen XIX. mendean?



WIKIPEDIA